

**DEIALDIAREN BERARIAZKO**  
**3.ZK. ERANSKINA**  
**GARAPENERAKO LANKIDETZA**  
**PROIEKTUEI DIRU-LAGUNTZAK**  
**EMATEKO DEIALDIA**

**ANEXO ESPECÍFICO DE**  
**CONVOCATORIA N° 3**  
**CONVOCATORIA PARA LA**  
**CONCESIÓN DE SUBVENCIONES A**  
**PROYECTOS DE COOPERACIÓN AL**  
**DESARROLLO**

**1. AURREKONTU KREDITUA**

150.000,00 euro.

1.0410.481.02.230.20 *Bestelako Transferentziak*.  
GKE aurrekontu aplikazioari lotuta dagoen A-425/2020 agiri kontable kargura finantzatzen da.

**2. HELBURUA**

Irungo Udalak, Gizarte Ongizate, Hezkuntza eta Gazteria Arloari esleitutako aurrekontu-baliabideen markoan, Garapenerako Lankidetzaren programei diru-laguntzak ematea aurreikusten du.

Diru-laguntza hauekin, asmoa da pobrezia bere osotasunean errotik desagerrarazten laguntzen duten proiektuetan kolaboratzea, herrialde pobretuetan emakumeen ahalduntzea sustatuz, instituzioak eta egiturazko lankidetzaren eraldatzailea indartuz, Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJS) betetzen lagunduz.

**1. CREDITO PRESUPUESTARIO**

150.000,00 euros.

Se financia con cargo al documento contable A-425/2020 que está imputado a la aplicación presupuestaria 1.0410.481.02.230.20 - *Otras Transferencias. ONG*.

**2. OBJETO**

El Ayuntamiento de Irun, en el marco de los recursos presupuestarios asignados al Área de Bienestar Social, Educación y Juventud, contempla la concesión de subvenciones a programas de Cooperación al Desarrollo.

Con estas subvenciones se pretende colaborar en proyectos que contribuyan a la erradicación de la pobreza en todas sus dimensiones, fomentando el empoderamiento de las mujeres, el fortalecimiento institucional y la cooperación estructural y transformadora en los países empobrecidos, coadyuvando al cumplimiento de los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS).

Deialdi honen xedea da Garapenerako Lankidetzaren proiektuei, konkurrentzia-erregimenean, diru-laguntzak ematea.

### 3. DIRU-LAGUNTZA EMATEKO PROZEDURA

Diru-laguntzaren kontzesioa norgehiagokaren erregimenean egingo da, hau da, subentzionaturiko jardueren kalitatea eta bideragarritasuna ziurtatuko duen laguntza kopurua soilik aukeratuko da, kasu bakoitzean zehaztutako irizpideen arabera.

Dagoen zenbatekoa lortutako puntuazio globalaren arabera banatuko da, puntuaziorik altuena atera duen entitatetik hasi eta harik eta dagoen kopurua agortu arte.

Gehenez atera daitezkeen 100 puntuetatik gutxienez 40 lortzen dituzten proiektuak lagundu ahalko dira diruz soilik.

Aipatutako azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorraren 25. artikuluan aurreikusten diren epeetan (6 hilabete, deialdia argitaratzen denetik) erabakiko eta jakinaraziko dira eskaerak.

Ezarritako epeetan erabakiaren jakinarazpenik ez bada egin, dagozkion eskaerak ezetsi egin direla kontsideratu ahal izango da, administrazio-prozeduraren araudian ezarritako isiltasun-ondorioetarako.

Es objeto de la presente convocatoria la concesión, en régimen de concurrencia, de subvenciones a proyectos de Cooperación al Desarrollo.

### 3. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LA SUBVENCIÓN

La concesión de la subvención se efectuará en régimen de concurrencia competitiva, de manera que tan sólo se seleccionará, conforme a los criterios fijados en cada caso, un número de ayudas que asegure la calidad y viabilidad de las actividades subvencionadas.

El importe disponible se repartirá en función de la puntuación global obtenida, comenzando por la entidad que haya obtenido mayor puntuación, y así hasta agotarlo.

Sólo podrán ser subvencionados aquellos proyectos que obtengan como mínimo 40 puntos de los 100 puntos posibles como máximo.

Las solicitudes serán resueltas y notificadas en los plazos previstos en el artículo 25 de la mencionada Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (6 meses desde la publicación de la convocatoria).

La falta de notificación de la resolución en los plazos establecidos podrá considerarse como denegación de las correspondientes solicitudes a los efectos de silencio fijados en la normativa sobre procedimiento administrativo.

#### 4. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROIEKTUAK

Diruz lagungarriak izango dira garatzen ari diren herrialdeetako kolektibo edo eremurik behartsuenetako premiak asetzerantz xedatzen direnak; herrialde horiek OCDEren Garapenerako Laguntzako Batzordearen Laguntza Hartzaileen Zerrendan daudenak dira. Jarduera sektoreen artean, ondokoak bultzatzen dituzten ekintzak izango dira:

- a) Bizi-baldintza duinen sustapena, bereziki zailtasun handienak dauzkaten populazioaren sektoreentzako oinarritzko gizarte zerbitzuetan indar eginez: osasun arreta primarioan, oinarritzko hezkuntza, etxebizitza, ura, saneamendua, programak.
- b) Haurrei zuzendutako arreta.
- c) Emakumezkoa gunerik guztietan zuzentasunez integratzeko sustapena, genero-indarkeriaren aurkako prebentzio-lana azpimarratuz eta erabaki-hartzean parte-hartzea sendotuz (jabeakuntza) tokiko nahiz eskualdeko nahiz nazioko eremuetan.
- d) Giza eskubideak defendatu, sustatu eta zabaltzea.
- e) Komunitatea eta garapen demokratikoa indartzea, ordezkari den tokiko erakunde publiko eta demokratiko baten parte

#### 4. PROYECTOS SUBVENCIONABLES

Se considerarán proyectos subvencionables los destinados a satisfacer las necesidades de colectivos o zonas más desfavorecidas de los países en vías de desarrollo, considerando éstos los incluidos en la Lista de Receptores de Ayuda del Comité de Ayuda al Desarrollo de la OCDE. Entre los sectores de actuación, se considerarán las acciones que potencien:

- a) La erradicación de la pobreza con la promoción de condiciones de vida dignas, incidiendo especialmente en los servicios sociales básicos para sectores de población más desfavorecidos: salud primaria, educación básica, vivienda, agua, saneamiento.
- b) La atención de la infancia.
- c) La promoción de una integración equitativa de la mujer en todos los espacios, enfatizando el trabajo de prevención en contra de la violencia de género y fortaleciendo su participación en la toma de decisiones (empoderamiento) tanto en ámbitos locales, regionales como nacionales.
- d) La defensa, promoción y divulgación de los Derechos Humanos.
- e) Fortalecimiento de la comunidad y el desarrollo democrático con la participación o aval en el proyecto de una

hartzearekin edo abalarekin.

- f) Biztanleen jabekuntza bultzatzen duten prestakuntzako eta laguntza teknikorako proiektuak.
- g) Kultur, hizkuntza edo nortasun gutxiengoak babesten laguntzea, estaturik gabeko herriei eta lurraldeei arreta berezia emanez.
- h) Garapen sozio-ekonomiko iraunkorra:
  - Ingurumena errespetatzen duten tokiko ekonomia sustatzeko proiektuak (iraunkortasun ekologikoa).
  - Laneratze-gizarteratzea: kolektibo ahulen enplegua eta lanbide-prestakuntza sustatzea.
- i) Elikaduraren burujabetzaren. Nekazaritza ekologikoaren eta Bidezko Merkataritzaren defentsa.

## 5. PROIEKTUEK HELBURU DUTEN BIZTANLERIA

Proiektuek honako biztanle-multzo hauetakoren bat izango dute lehentasunezko helburu:

- a) Kolektibo ahuletakoak diren emakumeak.
- b) Ahulezia-egoeran dagoen haurtzaroa.
- c) Mehatxupean dauden gutxiengo etnikoak.
- d) Landa eremuko biztanleria pobreak edo

institución pública local representativa y democrática.

- f) La formación y asistencia técnica que potencien el empoderamiento de la población local.
- g) El apoyo a la protección de las minorías culturales, lingüísticas o de identidad, prestando una atención especial a lo pueblos y territorios sin estado.
- h) El desarrollo socio-económico sostenible:
  - Proyectos de promoción económico local respetuosos con el medio ambiente (sostenibilidad ecológica)
  - Inserción socio-laboral: fomento del empleo y formación profesional para colectivos vulnerables.
- i) La defensa de la Soberanía Alimentaria, la agricultura ecológica y el Comercio Justo.

## 5. POBLACIÓN OBJETIVO DE LOS PROYECTOS

Los proyectos tendrán como población objetivo, prioritariamente, a alguno de los siguientes grupos:

- a) Mujeres pertenecientes a colectivos vulnerables.
- b) Infancia en situación de vulnerabilidad.
- c) Minorías étnicas amenazadas.
- d) Población campesina empobrecida o

- hirietan auzo baztertuetan bizi direnak.
- e) Biztanleria errefuxiatuak edo baztertutak edo berregokitze prozesuan daudenak.
- f) Proiektuaren xedeko herrialdeetako immigranteak eta emigratu itzuliak.
- g) Giza Eskubideak, Giza Garapena eta Garapen Iraunkorra defenditzen dituzten gizarte-erakundeak.

- urbana en barrios marginales.
- e) Poblaciones refugiadas o desplazadas o en proceso de reasentamiento.
- f) Inmigrantes y emigrados retornados en los países destino del proyecto.
- g) Organizaciones sociales de defensa de los Derechos Humanos, Desarrollo Humano y el Desarrollo Sostenible.

## 6. DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN GASTUAK

Diruz laguntzekoak izan daitezten, gastuek argi eta garbi erantzun behar diete diruz lagundutako jardueren izaerari, eta, gainera, oinarri hauetan ezarritako epean egin beharko dira. Horrenbestez, honako gastu hauek jaso dezakete diru-laguntza:

- a) Eraikuntzak edo azpiegiturak eraiki edo berritzeari dagozkion gastuak; ekipoak eta materialak erostea eta garraiatzea; eta funtzionamendu gastuak.
- b) Salbuespen gisa, eraikinak edo lurak erosteko diru-laguntza emango da, baldin eta haien titularitatea helburu den biztanleriaren erakunde ordezkari batek duela egiaztatzen bada.
- c) Tokiko langileen gastuak, tokiko bazkidearen langileen lana barne. Dokumentuz egiaztatu beharko da proiektua gauzatu den guneko herrialdean horrelako kontratuetarako

## 6. GASTOS SUBVENCIONABLES

Se consideran gastos subvencionables aquellos que de manera indubitada respondan a la naturaleza de la actividad subvencionada y se realicen en el plazo establecido en las presentes bases, pudiendo ser objeto de subvención los siguientes gastos:

- a) Gastos relativos a la construcción o rehabilitación de edificaciones o infraestructuras, compra y transporte de equipos y materiales y costes de funcionamiento.
- b) Con carácter excepcional se subvencionará la compra de edificios o terrenos, siempre que se demuestre que su titularidad recaerá en una entidad representativa de la población objetivo.
- c) Gastos de personal local, incluido el trabajo del personal de la contraparte. Se deberá acreditar documentalmente el salario medio para ese tipo de contrato en el país de la zona donde se vaya a realizar

batez besteko soldata zein den.

- d) Atzerriratutako kanpoko langileen gastuak, horiek ezin izango dute gainditu diru-laguntzaren %10a.

Ahal dela, bertako giza baliabideak erabili beharko dira. Horregatik, atzerriratutako langileak kontratatzeko, langile horiek bidaltzeko beharra egiaztatzen duen txostena aurkeztu beharko da.

- e) Profesionalentzako laguntza teknikoa, aholkularitza juridikoa, eta tokiko giza baliabideen prestakuntza eta trebakuntza proiektuak gai duen herrialdean.
- f) Proiektuarekin zuzenean loturiko zeharkako gastuak –administrazio, kudeaketa nahiz identifikazio, prestatze, jarraipen eta ebaluazioa gastuak barne– ezin izango dute eskatutako diru-laguntzaren %5a gainditu. BEZ eta zerga baliokideak salbuetsita egongo dira, horiek berreskuragarriak direnean, eta baita indarrean dauden betebeharretatik eratorritako isunak edo zehapenak ere.
- g) Irunen Garapenerako Sentsibilizazioa edo Heziketa jarduerak gauzatzeko gastuak, gehienez ere diru-laguntzaren %3raino.
- h) Inolaz ere ez dira diruz lagunduko deialdiaren aurreko urteetako gastuak.

Hori guztia, azaroaren 17ko 38/2003 Diru-

el proyecto.

- d) Gastos de personal externo expatriado, que no podrán superar el 10% de la subvención.

Se deberá recurrir en la medida de lo posible a los recursos humanos locales. Por ello, el contrato de personal expatriado supondrá el aporte de una memoria justificativa de la necesidad del envío de dicho personal.

- e) Asistencia técnica de profesionales, asesoría jurídica y formación y capacitación de recursos humanos locales en el país destino del proyecto.
- f) Gastos indirectos que estén directamente vinculados al proyecto, incluyendo los gastos de administración y de gestión así como los de identificación, formulación, seguimiento y evaluación que en total no podrán superar el 5% de la subvención. Se considerarán no imputables el IVA e impuestos equivalentes cuando estos sean recuperables, así como las multas o sanciones derivadas de las obligaciones vigentes.

- g) Gastos para desarrollar actividades de Sensibilización o Educación al Desarrollo en Irun, hasta un máximo del 3% de la subvención.

- h) En ningún caso, se subvencionarán gastos de años anteriores a la convocatoria.

Todo ello, de acuerdo con lo previsto en el art.

laguntzen Lege Orokorraren 31. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

## 7. ONURADUN IZAERA LORTZEKO BALDINTZAK

Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuek jaso ahal izango dituzte diru-laguntza hauek, esate baterako, Garapenerako Gobernuz Kanpoko Erakunde (GGKE), kongregazio erlijioso, fundazio eta antzekoek, beren estatutuetan helburu nagusia garapenerako lankidetzaren esparruan ekintzak garatzea dutenean, eta bideratzen dituzten jarduerak oinarri honetan irizpideekin bat datozenean.

Ondorio horietarako, irabazi asmorik gabeko erakundeak izango dira erakundearen xedearekin bat datozen jarduerak garatzen dituztenak eta lortzen diren etekinak gobernuz kanpoko elkarteak edo erakundeak dituen helburuetarako inbertitzen dituztenak.

Erakundeek egoitza Euskal Autonomi Erkidegoan izango dute eta ordezkaritza iraunkorra Gipuzkoan, indarrean dagoen legeriaren arabera eratuta egon beharko dira, eta Eusko Jaurlaritzako Elkarleen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon (ekainaren 22ko 7/2007 Legea, Euskadiko Elkarteei buruzkoa; uztailaren 29ko 145/2008 Dekretua eta 1987ko martxoaren 2ko Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza Sailaren Erabakia, martxoaren 9ko EHAOn argitaratua) garapenerako lankidetzaren programei diru-laguntzeen deialdia argitaratu baino bi urte

31 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.

## 7. REQUISITOS PARA OBTENER LA CONDICIÓN DE BENEFICIARIO

Podrán optar a las subvenciones entidades privadas sin ánimo de lucro, tales como Organizaciones No Gubernamentales de Desarrollo (ONGD), congregaciones religiosas, fundaciones y similares, en cuyos estatutos señalen como objeto principal la realización de acciones en el ámbito de la cooperación al desarrollo y cuyas actividades se ajusten a los criterios establecidos en las presentes bases.

A estos efectos, se considerarán entidades sin ánimo de lucro aquellas que desarrollen actividades acordes con el objeto de la entidad y cuyos beneficios se inviertan en los fines que persigue la asociación u organización no gubernamental.

Las entidades deberán disponer de sede social en la Comunidad Autónoma Vasca y representación permanente en Gipuzkoa, estar constituidas con arreglo a la legislación vigente, e inscritas en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco (Ley 7/2007, de 22 de junio, de Asociaciones del País Vasco; Decreto 145/2008, de 29 de julio y Resolución del Departamento de Presidencia del Gobierno Vasco, de 2 de marzo de 1987, B.O.P.V., de 9 de marzo) con dos años de antelación a la fecha de publicación de la convocatoria de subvenciones a programas

lehenagotik gutxienez.

Salbuespen gisa eta garapenerako lankidetzaren esparruan erakunde berrien lana sustatu ahal izateko, gainerako baldintza guztiak beterik, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatua denbora txikiagoa daraman erakunde batena izan daiteke aukeratutako proiektu bat.

Proiektuak aurkezten dituzten erakundeek diru-laguntza jasotzen den lurraldean lan egingo duen erakunderen baten partaidetza izango dute. Tokiko gizarte erakunde edo bazkide horrek berezko nortasun juridikoa izango du eta ez du irabazi asmorik izango.

Deialdi honetatik kanpo geratuko dira ezinbestean Estatuaren, Autonomi Administrazioaren, Foru Aldundiaren eta aurrezki erakundearen mendeko instituzioak eta zerbitzuak.

## **8. ESPEDIENTEA BIDERATZEA, ERABAKIA HARTZEA ETA JAKINARAZTEA**

Garapenerako Lankidetzaren alorrean ardura duen udal teknikaria izango da organo izapidegilea espedientearen hasieratik espedientea itxi arte, eta dagokion txostena egingo du, aurkeztutako proiektu guztiak baloratu.

Alkatetzak, edo ordezkaritza jasotzen duen Organoak, ebatziko du deialdia, egindako

de cooperación al desarrollo.

De forma excepcional y con el objetivo de promocionar el trabajo de nuevas organizaciones en el ámbito de la cooperación al desarrollo, uno de los proyectos seleccionados podrá corresponder a una entidad que, cumpliendo el resto de requisitos, esté inscrita en el Registro General de Asociaciones del Gobierno Vasco con menos tiempo de antelación.

Las organizaciones deberán contar con la participación de una organización o entidad que trabaje en el país receptor de la ayuda. Esta entidad social local o contraparte, tendrá personalidad jurídica propia y carecerá de ánimo de lucro.

Quedan expresamente excluidas de acceder a esta convocatoria las instituciones y servicios dependientes del Estado, la Administración Autonómica, la Diputación Foral y las entidades de ahorro.

## **8. INSTRUCCIÓN DEL EXPEDIENTE, RESOLUCIÓN Y NOTIFICACIÓN**

La técnica municipal responsable en materia de Cooperación al Desarrollo actuará como órgano instructor desde el inicio hasta el cierre del expediente y formulará el correspondiente informe con la valoración de todos los proyectos presentados.

Alcaldía, o el Órgano en quien delegue, resolverá la convocatoria a la vista de la

proposamena ikusita. Ebazpenean –entitate eskatzaileari bidaliko zaio– emandako diru-laguntzaren zenbatekoa jasoko da, eta, halaber, ordaintzeko modua, justifikatzeko modua eta deiaidi honetan edo emakidaren unean indarrean dagoen araudian exijitzen diren gainerako baldintzak eta betekizunak ere bai; edo, hala badagokio, ukatzeko arrazoiak edo ezeste-adierazpena..

## 9. BALORAZIO BATZARRAREN OSAKETA

Emakida-proposamena kide anitzeko organo batek formulatuko du, instrukzio-organoarene bidez. Honako hauek izango dira kide anitzeko organo hori osatuko dutenak:

- Gizarte Ongizate Arloko Zuzendaria.
- Esku-hartze Komunitarioko Arduraduna
- Garapenerako Lankidetzako Teknikaria

HEGOA Nazioarteko Lankidetzak eta Garapenari Buruzko Ikasketak Institutuak proiektuen balorazioa egingo du, deialdi honetan aipatutako irizpideen arabera.

## 10. ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA

Eskaerak aurkezteko epea deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik 2020ko irailaren 15era artekoa izango da.

propuesta realizada. En la resolución, que se notificará a la entidad solicitante, se hará constar la cuantía de la subvención concedida, la forma de pago, forma de justificación y demás condiciones y requisitos exigidos en esta convocatoria o en la normativa vigente en el momento de su concesión, o en su caso, los motivos de denegación o declaración de desistimiento.

## 9. COMPOSICIÓN DE LA COMISIÓN DE VALORACIÓN

La propuesta de concesión se formulará por un órgano colegiado a través del órgano instructor, compuesto por:

- Directora del Área de Bienestar Social.
- Responsable de Intervención Comunitaria
- Técnica de Cooperación al Desarrollo.

El Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional HEGOA será la entidad encargada de realizar la valoración técnica de los proyectos, conforme a los criterios señalados en la presente convocatoria.

## 10. PLAZO DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES

El plazo de presentación de solicitudes será de desde el siguiente de la publicación de la convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa hasta el 15 de septiembre de 2020.

Deialdi honetara entitate eskatzaile bakoitzeko proiektu bakarra aurkeztu ahalko da.

A la presente convocatoria solamente se podrá presentar un proyecto por entidad solicitante.

## **11. ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO BERARIAZKOA**

Deialdiaren baldintza orokorretan adierazitako dokumentazioa, eskaera aurkezten den modua dela ere, honako edukia izan beharko du:

- Gauzatu beharreko proiektua deskribatuko duen memoria egokituko da berariazko ereduari (COOP1 inprimakia). Inprimaki honek ordezkatzen ditu deialdi honetako Baldintza Orokorretako ESKAERAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA atalean definitutako Memoria eta Aurrekontuaren eredu normalizatuak.
- Eskaera egiten duen erakundearen arduradunaren NANaren fotokopia eta hura legez ordezkatzen duela azaltzen duen ziurtagiria.
- Erakunde eskaera-egilearen Estatutuak eta curriculum: kideak, helburuak, garatutako jarduerak, etab.
- Identifikazio Fiskalaren Kodearen dokumentuaren fotokopia.
- Azkeneko ekitaldiko gainditutako Urteko Kontuak.
- Banku edo aurrezki erakunde batek

## **11. DOCUMENTACIÓN ESPECÍFICA A PRESENTAR EN LA SOLICITUD**

La documentación indicada en las condiciones generales de la convocatoria, independientemente del modo en que se presenten las solicitudes, deberá ajustarse a las siguientes precisiones:

- La memoria descriptiva del proyecto a realizar se ajustará en su contenido al modelo específico (impreso COOP1). Este impreso sustituye a la Memoria y Presupuesto definidos en el apartado DOCUMENTACIÓN GENERAL A PRESENTAR EN LA SOLICITUD de las Condiciones Generales de esta Convocatoria General de Subvenciones.
- Fotocopia del DNI de la persona responsable de la entidad solicitante y su certificación como representante legal de la misma.
- Estatutos y curriculum de la entidad solicitante: componentes, objetivos, actividades desarrolladas, etc.
- Fotocopia del documento del Código de Identificación Fiscal.
- Cuentas Anuales aprobadas del último ejercicio cerrado.
- Documento expedido por una entidad

eginiko dokumentua, erakunde eskaera-egilea hango kontu korrante baten titularra dela egiaztatzen duena.

- Tokiko gizarte erakunde edo bazkideak izaera juridikoa duela eta irabazi asmorik gabea dela egiaztatzen duen dokumentazioa, baita dituen esperientzia, ahalmena eta kaudimena ere. Eta proiektuan parte-hartzearen ziurtagiria edo abala, tokiko instituzio publiko ordezkagarri eta demokratiko batena, bidezkoa bada.
- Irunen egiteko sentibilizazio edo garapenerako hezkuntzarako ekintza publikoaren proposamena.

## 12. ESKAERAK BALOREATZEKO IRIZPIDEAK

### 1) Proiektuaren ezaugarriak eta kalitate teknikoa, (30 puntu gehienez):

1.1. Proiektuari buruzko informazioa: (gehienez 8 puntu)

- Proiektuaren aurrekarien, testuinguruaren eta justifikazioaren azalpen argia eta zehatza.
- Jarduketaren koherentzia:
  - Proiektuaren justifikazioak, proiektuak duen helburu espezifikoa eta horretarako planifikatutako emaitzek elkarrekin duten zerikusia.
  - Planifikatutako ekintzen eta helburua

bancaria o de ahorro, que certifique la titularidad de una cuenta corriente abierta por la entidad solicitante.

- Documentación que acredite que la entidad social local (o contraparte) tiene personalidad jurídica y carece de ánimo de lucro, así como su experiencia, capacidad y solvencia. Y certificado de participación o aval en el proyecto de una institución pública local representativa y democrática, si procede.
- Propuesta de la actividad pública de sensibilización o educación para el desarrollo a realizar en Irun.

## 12. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES

### 1) Características y calidad técnica del proyecto (hasta 30 puntos):

1.1. Información sobre el proyecto: (hasta 8 puntos)

- Explicación clara y concisa de los antecedentes, contexto y justificación del proyecto.
- La coherencia de la acción:
  - Relación entre la justificación del proyecto, el objetivo específico que persigue y los resultados planificados para ello.
  - Relación entre las actividades

lortzeko aurreikusten diren giza-baliabide, baliabide tekniko eta materialen arteko harremana.

planificadas y los recursos humanos, técnicos y materiales previstos para llevarlas a cabo.

- Biztanleriaren ezaugarriak eta pertsona onuradunen sexuen araberako banaketa.

- Caracterización de la población y distribución por sexos de las personas beneficiarias.

- Proiektuaren inguruko partaidetzari buruzko identifikazioa: protagonista den populazioaren eta prozesuan bestaldeko kide denaren parte-hartze maila.

- Identificación participativa del proyecto: grado de participación de la población protagonista y contraparte local en el proceso.

1.2. Adierazleen eta egiaztapen iturrien zehaztapena. (4 puntu gehienez).

1.2. Especificación de indicadores y fuentes de verificación. (hasta 4 puntos).

1.3. Aurrekontuaren azalpena: (8 puntu gehienez).

1.3. Explicación del presupuesto: (hasta 8 puntos).

- Aurrekontua osatzen duten kontu-sailen inguruko azalpenaren xehetasun-maila.
- Kontu-sail horien eta planifikatutako ekintzen artean dagoen berariazko lotura.
- Aurrekontuko kontu-sailak proformako fakturen bidez babestea.

- El grado de desglose en la explicación de las partidas que forman el presupuesto.
- La vinculación expresa entre dichas partidas y las actividades planificadas.
- El respaldo de las partidas del presupuesto con facturas pro forma.

1.4. Bideragarritasun ekonomikoa (5 puntu gehienez), lortu nahi diren emaitzak etorkizunean mantendu ahal izateko diru-iturri bat behar duten proiektuetarako soilik.

1.4. Viabilidad económica (hasta 5 puntos) sólo para proyectos en los que sea necesaria una fuente de ingreso para el sostenimiento futuro de los resultados que se persiguen.

- Merkatu ikerketa (ondasun bat edo zerbitzu bat sortzea xede duten proiektuetarako)
- Kostuen analisisa.
- Diru-iturriak.

- Estudio de mercado (para proyectos que consisten en la producción de un bien o servicio)
- Análisis de costes.
- Fuentes de ingresos.

1.5. Bideragarritasun teknikoa (5 puntu gehienez), eraikuntza aktibitate edo teknologia-transferentzia jarduerak eskatzen dituzten proiektuetarako soilik.

- Lurren titulartasuna.
- Obren planoak.
- Eraikuntza memoria.
- Transferitutako teknologia berriak egikaritzeko aurreikusten diren aktibitateak.

## **2) Interes bereziko alorrak (45 puntu gehienez).**

2.1. Emakumeen jabeakuntza (15 puntu gehienez)

- Emakumeen eskubideen aldeko defentsa aktiborako bideratzen diren ekintzak sartzea.
- Emakumeen eskubideen aldeko defentsa aktiborako ekintza nabarmenen bat badago.
- Proiektuak emakumeen eskubideen aldeko defentsa aktiboa ez badu, baina osagai nabarmenak baditu.

2.2. Erakundea sendotzea (15 puntu gehienez)

- Tokiko gobernuak sendotzera bideratutako proiektua.

2.3. Aldaketa estrukturalak eta horretarako lankidetzak (15 puntu), aldaketa prozesu

1.5. Viabilidad técnica (hasta 5 puntos) sólo para proyectos en los que se contemplen actividades de construcción o transferencia de tecnología.

- Titularidad de los terrenos.
- Planos de obras.
- Memoria de construcción.
- Actividades previstas para hacer operativas las nuevas tecnologías transferidas.

## **2) Áreas de especial interés (hasta 45 puntos).**

2.1. Empoderamiento de las mujeres (hasta 15 puntos)

- Inclusión de acciones orientadas a la defensa activa de los derechos de las mujeres.
- Si hay alguna acción destacada para la defensa activa de los derechos de las mujeres.
- Si el proyecto no tiene como objetivo la defensa activa de los derechos de las mujeres, pero sí tiene componentes destacados.

2.2. Fortalecimiento institucional (hasta 15 puntos)

- Proyecto orientado al fortalecimiento de los gobiernos locales.

2.3. La cooperación estructural y transformadora (hasta 15 puntos) apoyo a

integralei eta epe luzekoei laguntzea, alegia erakundeak, arauak eta balioak aldatzen dituztenei tokiko eta estatu mailako erabaki maila guztietan, erreferentzia ereduak sortuz.

- Proiektua estrategia baten barruan badago, erantsi dokumentu bat proiektuaren zein faseri edo zein punturi dagokion azaltzeko.

### **3) Beste irizpide batzuk (25 puntu gehienez).**

3.1. Egoitza nagusia Gipuzkoa duten erakundeak (6 puntu).

3.2. Aurretik Irungo Udalak diruz lagundu duen lankidetzatza estrategia batean sartzen den lan baten jarraipena diren proiektuak (8 puntu).

3.3. Irunen azken bi urte hauetan sentsibilizazio jarduerak gauzatu dituzten entitateak (puntu 1 jarduera bakoitzeko, 6 puntu gehienez).

3.4. Lehentasuna duen eremu geografikoa (5 puntu gehienez)

Proiektua GLO jasotzen duten herrialdeetako GLBko herrialde afrikarretan egiten bada edo proiektua estaturik gabeko herrialdeetan egiten bada.

procesos de cambio integrales y a largo plazo, que transformen las instituciones, normas y valores en los diferentes niveles de decisión local y estatal, generando modelos de referencia.

- Si el proyecto está insertado en una estrategia adjuntar un documento explicando a qué fase o punto corresponde el proyecto.

### **3) Otros criterios (hasta 25 puntos).**

3.1. Entidades que tengan su sede central en Gipuzkoa (6 puntos).

3.2. Proyectos que sean una continuidad de un trabajo insertado en una estrategia de cooperación subvencionada con anterioridad por el Ayuntamiento de Irun (8 puntos).

3.3. Entidades que hayan desarrollado actividades de sensibilización en Irun durante los dos últimos años (1 punto por actividad hasta un máximo de 6 puntos).

3.4. Ámbito geográfico prioritario (hasta 5 puntos)

Si el proyecto se desarrolla en países africanos incluidos en la lista del CAD de países receptores de AOD o si el proyecto se realiza en pueblos sin estado.

### 13. DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKO ETA ORDINKETA

Erakunde batek jaso ahal izango duen diru-laguntzaren kopuru gorena ez da inondik ere 12.000 euro baino gehiagokoa izango.

Eskatutako diru-laguntzak eta emandako kantitateak inolaz ere ez dira izango proiektuaren kostuaren %80a baino gehiago. Bai erakunde eskatzailearen bai tokiko erakundearen ekarpenak, izaten badira, aurrekontuan eta dokumentu bidez zehaztu beharko dira. Justifikatutako gastuak aurrekontuan ageritakoak baino txikiagoak izango balira, emandako diru-laguntza portzentaje berean murriztuko litzateke.

Hautatutako proiektuei emango zaizkien diru-laguntzen zenbatekoa, oro har, eskatutako laguntzaren %100ekoa izango da. Kasu berezietan, proposatutako gastuak aztertu ondoren eta arrazoi justifikatuak daudenean, eskatutako zenbatekoa baino kopuru txikiagoa eman dezake Udalak, betiere horrela egiteak ekintzaren bideragarritasuna arriskuan jartzen ez badu.

Onartu beharreko diru-laguntzak denak portzentaje berean minoratu ahal izango dira, hautatutako proiektuen artean beste bat, azkena, sartzeko aukera ematearren, aurrekontuko proiektu horretarako diru-kontsignazioa bakarrik zati bat estaltzeko iristen denean. Kasu horretan, eskatutako diru-laguntzaren minorizazio-pontzentajea proportzionalki hainbanatuz aplikatuko zaio

### 13. IMPORTE Y PAGO DE LA SUBVENCIÓN

El importe máximo de la subvención que podrá recibir una entidad no excederá en ningún caso la cantidad de 12.000 euros.

Las subvenciones solicitadas y las cantidades concedidas no podrán superar en ningún caso el 80% del monto total del proyecto. Los aportes de la entidad solicitante como los de la contraparte, si los hubiera, deberán detallarse en el presupuesto y justificarse documentalmente. En caso de que los gastos justificados fueran menores que los presupuestados, la subvención concedida se minoraría en el mismo porcentaje.

El importe de las subvenciones concedidas a los proyectos seleccionados será, con carácter general, del 100% de la subvención solicitada. En casos especiales, el Ayuntamiento podrá conceder una cantidad inferior al importe solicitado, tras el análisis de los gastos propuestos y por motivos justificados, siempre que por esta causa no se ponga en peligro la viabilidad de la actuación.

Las subvenciones a aprobar podrán ser minoradas en un porcentaje idéntico en todas ellas, para permitir incluir entre los proyectos seleccionados uno último para el que la consignación presupuestaria disponible sólo alcanzase su cobertura parcial. En este caso, el porcentaje de minoración de la subvención solicitada será aplicado de forma prorrateada a cada partida, por lo que no será necesario

kontu-sail bakoitzari eta, hartara, entitate onuradunak ez du aurrekontu birformulaturik aurkeztu beharrik izango.

Honela egingo da diru-laguntzaren ordainketa:

- Emandako zenbatekoaren %50, konturako ordainketa kontzeptuan, diru-laguntza emateko erabakia sinatzen denean (Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorraren 34.4 artikuluan b atalak xedatzen duenaren arabera), diruz lagundutako ekintza burutzeko beharrezko finantzazio gisa.
- Gainerako %50, diru-laguntzaren justifikazioa aurkeztutakoan, baldintza orokorreko 16. artikuluan eta oinarri honetako 15. artikuluan zehaztutako moduan, eta aldeko txosten teknikoa jaso ondoren.

Gainerako %50aren ordainketa aintzat hartu ahal izango da, diru-laguntzaren %40 justifikatzerakoan.

#### **14. PROIEKTUA GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKAZIOAK AURKEZTEKO EPEA**

Proiektuak gehienez ere BI HILABETEKO epean hasiko dira gauzatzen, diru-laguntza eman zaiela jakinarazten zaien egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, eta gehienez ere URTEBETEKO iraupena izango dute.

Eskaerak aurkezteko epea bukatuko da 2022ko ekainaren 30ean, luzapena ezik.

que la entidad beneficiaria presente un presupuesto reformulado.

El abono de las subvención se realizará en la siguiente forma:

- 50% del importe concedido, en concepto de pago a cuenta, a la firma de la resolución de concesión, conforme dispone el apartado b del art. 34.4 de la Ley 38/2003 (General de Subvenciones), como financiación necesaria para poder llevar a cabo la actuación subvencionada.
- 50% restante, una vez presentada la justificación de la subvención, en la forma establecida en el artículo 16 del condicionado general y 15 de las presentes bases y previo informe técnico favorable.

Se podrá considerar el pago del 50% restante justificando al menos un 40% de la ayuda concedida.

#### **14. PLAZO DE EJECUCIÓN Y DE JUSTIFICACIÓN DEL GASTO**

Los proyectos deberán iniciarse en el plazo máximo de DOS MESES a partir del día siguiente de la notificación de concesión de subvención y tendrán una duración máxima de UN AÑO.

El plazo de presentación de la documentación justificativa de la subvención finalizará el 30 de junio de 2022, salvo prórroga.

## 15. GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Deialdiaren baldintza orokorretan adierazitako dokumentazioaz gain, eskaera aurketen den modua dela ere, erantsi beharko zaio:

a) COOP2 Inprimakia: Garapenerako kooperazioen proiektuen diru-laguntza justifikazioa, non honako hau jasotzen den:

- ✓ Informatzen den aldiaren eginiko jardueren azalpen memoria.
- ✓ Ordainagirien koadro orokorra, Irungo Udalen onartutako diru-laguntzari egotzitako gastu zehatzarekin.
- ✓ Ordainagirien koadro orokorra, beste kofinantzaizale batzuei egotzitako gastu zehatzarekin.
- ✓ Diru-sarreraren eta gastuen balantze ekonomikoa euroaren eta erabilitako dibisaren arteko kanbio-tasa zein izan den adieraziz, halakorik egon bada.

COOP2 inprimakiak ordezkatzeko deialdi honetako Baldintza Orokorretako GASTUAREN JUSTIFIKAZIOAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA atalean definitutako Memoria, Fakturen Zerrenda eta Kontu Justifikatiboaren eredu normalizatuak.

b) Egindako transferentzien kopia.

## 15. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR EN LA JUSTIFICACIÓN DEL GASTO

Además de la documentación indicada en las condiciones generales de la convocatoria, independiente del modo en que se presenten las solicitudes, deberán acompañarse de:

a) Impreso COOP2: Justificación de subvención para proyectos de cooperación al desarrollo, en el que se recoge:

- ✓ Memoria explicativa de las actividades realizadas en el período que se informa.
- ✓ Cuadro general de facturas con el desglose del gasto imputado a la subvención aprobada por el Ayto. de Irun.
- ✓ Cuadro general de facturas con el desglose del gasto imputado a otros cofinanciadores.
- ✓ Balance económico de ingresos y gastos, indicando en su caso el tipo de cambio entre el euro y la divisa utilizada.

El impreso COOP2 sustituye a los modelos normalizados de Memoria, Relación de Facturas y Cuenta Justificativa definidos en el apartado DOCUMENTACIÓN GENERAL A PRESENTAR EN LA JUSTIFICACIÓN DEL GASTO de las Condiciones Generales de esta convocatoria.

b) Copia de las transferencias realizadas.

c) Eginiko gastuaren jatorrizko frogagiriak, edo hala behar izanez gero, egiazkotasun-ziurtagiria duten kopiak, Irungo Udalak onartutako gastuaren diru-laguntzari egotzitakoa.

d) Eginiko gastuaren jatorrizko frogagiriak, edo hala behar izanez gero, egiazkotasun-ziurtagiria duten kopiak, egotzitako beste kofinantzaizaille batzuegandik lortutako diru-sarreraren gastu zehatzarekin.

e) Irunen egindako sentsibilizazio ekintzaren memoria.

f) Eginiko jardueren dokumentazio grafikoa edo ikus-entzunezkoa (argazkiak, bideoak, DVD, kartelak, programak, etab.)

Ez dira egiaztagiritzat onartuko:

- Barneko kostuak: administraziokoak, antolakuntzakoak, eta abar.
- Bazkari, afari eta ostalaritzako beste edozein zerbitzuren kostuak, subentzionaturiko jardueran parte hartu dutenek sortutakoak izan ezik, baina jarduera horren antolatzaileak kanpo utzita.

c) Justificantes originales, o en su caso copias acompañadas de un certificado de autenticidad, del gasto imputado a la subvención aprobada por el Ayto. de Irun.

d) Justificantes originales, o en su caso copias acompañadas de un certificado de autenticidad, del gasto imputado a los ingresos obtenidos de otros cofinanciadores.

e) Memoria de la actividad de sensibilización realizada en Irun.

f) Documentación gráfica o audiovisual de la realización de las actividades (fotografías, vídeos, DVD, carteles, programas, etc.)

No se admitirán como justificantes:

- Costes internos de administración, organización interna, etc.
- Costes de comidas, cenas u otros propios de servicios de hostelería, salvo los originados con relación a las personas participantes en la actividad subvencionada, con exclusión de miembros organizadores de dicha actividad.